



NONDIK GATOZ

IKASTOLEN
BATZARRA



ikastolenelkartea







- ¹ VII. Batzarrera begirako lan taldea osatu eta lanean hasi da 2023ko urtarrilean. Argi izan dugu gogoeta hau azken urte luzeetan egindakoaren baloraziotik abiatu behar dela. Horretarako, VI. Batzarretik gaur egun arte baliatu diren plan estrategikoetan oinarritu gara. Txosten honetan jasotzen diren balorazioak hiru dokumentu hauetatik jaso eta bateratu ditugu:

 - 2009-2014 II. plan integrala
 - EHLren geroaz, 2014-2018
 - Ikastolen VII. Batzarra: Biharko ikastolak (2020ko martxoa)
- ² Azpimarratu behar da balorazioetan jasotzen den informazioan, Euskal Herrian zehar zabaldurik dauden 114 ikastolen egoera aintzat hartu dela. Horretarako, balorazio prozesuan NIEk, Seaskak eta Ikastolen Elkarteak parte hartu dute, eta bakoitzak bere ikuspegitik ekarpenak egin ditu.
- ³ Ondorio-bildumaren antolaketa egiteko, honako ildo nagusi hauek hartu dira aintzat:

 1. Hezkuntza proiektu komuna aplikatzeko, ebaluatzeko eta eguneratzeko bultzatzaile izatea eta ikastola bakoitzaren laguntzaile izatea bere berariazko hezkuntza proiektua diseinatzean eta garatzean.
 - 1.1. Curriculum proiektua
 - 1.2. Hizkuntza proiektua
 - 1.3. Digitalizazio plana (IKT)
 - 1.4. Aholkularitza/ prestakuntza.
 2. Ikastolen zerbitzu kolektiboen antolakuntzaren eta kudeaketaren bilakaeran eta antolakuntzan arduradun izatea.
 - 2.1. Ikastolak sendotu eta berriak sortu
 - 2.2. "Euskal eskola" kontzeptua bultzatzea
 - 2.3. Ikastolen mugimenduaren antolakuntza-egitura sendotzea
 3. Hezkuntzaren testuinguru sozioekonomikoa eta politikoa azken hamarkada honetan.
 - 3.1. Demografia aldaketak (jaiotze tasa, segregazioa...)
 - 3.2. Administrazioekin harremanak (finantzazioa, aitortza, zerbitzu publikoa...)
 - 3.3. Partaidetza sozietarioa/ Gobernantza eredua (Ikastoletan eta Elkarteetan)
- ⁴ Atal bakoitzaren amaieran, lan ildo ezberdinek lurralde bakoitzean izan duen garapen eta zabalkundearen balorazio orokorra egiteko, izan duen eragina baloratuko da 1-4 eskalan (1 zabalkunde txikia, 4 zabalkunde handia).
- ⁵ Txostenaren eduki eta egituraren gaineko zehaztapen laburra egin dugu orain arte. Hurrengo orrialdetik aurrera, balorazio atala garatzen hasiko gara; kokapen labur batekin abiatuko dugu egindakoaren ebaluazioa.



⁶ Balorazio eta ondorioekin hasi aurretik, badira argitu beharreko ideia batzuk. Azpimarratu behar da dokumentu hau azken urte luzeetako gogoetaren ondorio izan diren Ikastolen Elkartearen ren plan integral eta estrategikoen balorazioaren emaitza dela, dokumentu horietan jasotzen diren helburu eta ekintzei erantzuten diotela. Ideia hau presente izan behar dugu dokumentuaren irakurketa egiten dugun bitartean, izan ere, Nafarroa eta EAE izan dira, orohar, estrategia horren gauzatzea bizi izan duten lurraldeak. Ikastolen eta Ikastolen Elkartearen helburu propioez gain, EAEko Hezkuntza Sailaren, Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren eta Espainiako Hezkuntza Ministerioaren eskakizunak markatu dituzte, hein batean, plan horien diseinu eta garapena.

⁷ Iparraldeko ikastolen beharrei erantzuteko eta Iparraldean Ikastola ereduaren zabalkunderako eta, beraz, Euskal Hezkuntzaren zabalkunderako estrategia diseinatu eta gauzatzea Seaskaren egitekoa izan da, eta askotan ez da bertan egindako lana dokumentu honetan azaltzen, esan bezala, dokumentu hau Ikastolen Elkartekoko plan integral eta plan estrategikoen balorazioan oinarritzen baita. Izan ere, Ikastolen Elkartearen ren sortze prozesuan, NIEren eta Seaskaren eskumenen gaineko gogoeta egin zen eta hausnarketa horien emaitza era honetan jaso zen Ikastolen Elkarteko barne araudian:

⁸ 3.artikulua Ahalmenak.

Bi.- Honako gai hauen inguruan Ikastolen Lurralde Batzarrak erabakitzeke ahalmena izango du:

a) EHI In Artezkaritza Kontseilurako bere lurraldeko Ikastolek izango dituzten lurralde-ordezkaririk Kooperatibaren Asanbladari proposatzea.

b) EHIren Artezkaritza Kontseiluan berak dituen ordezkariek beren botoak era kolegiatuan (Lurralde Batzarrak aginduaren arabera) edota bakarka eman behar dituzten erabakitzea.

c) Lurraldeko ikastolen jaiak antolatzen edota bere antolamendua esleitzeko eta egiteko erabakiak hartzea.

Nafarroako eta Iparraldeko lurraldeetan, aurreko zeregin horiez gainera, beste hauek ere izan ditzakete:

a) Beren lurraldeko Ikastoleen ordezkaritza, Erakundeen, gizarte-antolamenduen, alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte beraren aurrean eta baita bere lurralde-esparruari dagozkion kudeaketa komunikatiboa, laborala eta ekonomiko-finantzarioaz, beti ere EHIk dagozkion haren lurralde eta administrazio-esparruan, izango duen zerbitzuarekin koordinatuta.

b) Horrela eskatuko duten gai tekniko eta hezkuntzazkoetan, eta Nafarroako eta Iparraldeko ikastolen interesak ukituak baldin badaude, EHI eta lurralde hoietako erakunde koordinaturik arituko dira erakunde ordezkaritzari dagozkion jardueretan Eusko Jaurlaritzaren aurrean zein Madrilgo Gobernuaren aurrean.

Iparraldean, lehengoz gain, beren izaera juridiko eta pedagogikoaren berezitasuna dela bide hala eskatzen duten hezkuntza arloko zerbitzuak eta programak ere kudeatu ahal izango ditu, EHIk definitutako estrategia lerroekin koordinatuta.



Balorazio dokumentua osatzeko izandako eztabaidak eta lankidetzak argi utzi dute lehendik ere aipatzen genuena: alegia, Iparraldeko ikastolen, Nafarroako ikastolen eta EAeko ikastolen arteko estrategian ikuspegiak bateratzeko saiakera egin behar dela; eta hori zertarako? Ikastolena den hezkuntza proiektu komun horren garapenean bateratze sakonago bat egin ahal izateko eta ikastolen maila nazionaleko hezkuntza eredu horretan urrats gehiago egiteko ikuspegi integraletik.


Horiek horrela, sarreran edota aurkibidean zehaztu ditugun atalen gaineko gogoeta idatziz jartzen hasiko gara.





**NONDIK
GATOSZ**
IKASTOLEN
BATZARRA

1. Hezkuntza proiektu komuna aplikatzeko, ebaluatzeko eta eguneratzeko bultzatzaile izatea eta ikastola bakoitzaren laguntzaile izatea bere berariazko hezkuntza proiektua diseinatzean eta garatzean



1. Hezkuntza proiektu komuna aplikatzeko, ebaluatzeko eta eguneratzeko bultzatzaile izatea eta ikastola bakoitzaren laguntzaile izatea bere berriazko hezkuntza proiektua diseinatzean eta garatzean.

Atal honi begira egindako barne gogoetan bi dira atera ditugun ondorio nagusiak:

¹⁰ **Batetik**, ez da komuna den hezkuntza proiektu bat sortu. Badira partekatzen diren ildoak, baina Bidasoaren alde banatara dauden ikastoletan modu ezberdinean jorratu eta garatu dira. 2022an saiakera bat egin dugu Hezkuntza Marko Orokorraren (HMO) idazketarekin. HMOk ikastola guztientzako erreferentziazko dokumentua izan nahi du, bakoitzak bere autonomiatik Hezkuntza Proiektu sendoak idazteko, beti ere, markoak eskaintzen duen begirada bateratu horretatik. Seaskan, berriz, 1998an onartutako hezkuntza proiektua garatzen aritu dira, eta, egun, Hezkuntza taldekoak Hezkuntza Proiektuaren (HP) idazketan murgilduta daude. Beraz, oraindik sortze prozesuan gaudela esan daiteke. Bukatzeko, Euskal Herriko (EH) ikastoletako Pertsona Edua (PE) edo euskal herritarra definitzeko saiakera egin dugu; Ikastolen Elkarte, NIE eta Seaskako ordezkariak parte hartu dugu prozesu honetan eta bereizgarri eta ezaugarri komunak dituen definiziora iritsi gara.

¹¹ **Bestetik**, Hezkuntza Proiektu (HP) komunaren aplikaziorako hiru lan lerro zehaztu ziren aurreko plan estrategikoetan: ikasmaterialgintza, prestakuntza eta esperimentazioa. Hiru eremu horietan EAEko eta Nafarroako ikastolei eskaintza eta zerbitzu bateratua eman zaie, eta egindako lana modu positiboan baloratu da. Ikasmaterialak eta prestakuntza izan dira lurralde hauetan berrikuntza pedagogikoa eta irakasleen ahalduntzea lantzeko giltzarriak. Egindako lanarekin, ikastolekin ibilbide komun bat egin da eta guztiek urratsak egin dituzte bakoitzaren hezkuntza eredu biziberritzeko. Hala ere, nazio mailako proiektu bateratua ez da gauzatu; ez gara modu koordinatuan ikasmaterialgintzan aritu, ez dugu prestakuntzaren gaineko gogoeta partekaturik egin eta, ondorioz, batean eta bestean eskaini ditugunak ez dira bide beretik joan. Mahai gainean jartzen den gogoeta gaia da: zubiak eraiki eta ikuspegi bateratutik jarduteko prozedurak behar ditugu eskaintza bateratuago baterantz urratsak egiteko.

Hurrengo lerroetan Hezkuntza Proiektu komunaren gaineko irakurketa sakonagoa egingo dugu lan ildo ezberdinetan sakonduz:

1.1. Curriculum proiektua

¹² VI. Batzarrean Euskal Curriculumaren gelaratzea ziurtatzeko ikasmaterialen sorkuntza abiatzea adostu zen. Prozesu horretan sortu ditugu EKI DBH, EKI LH, Kimu eta Kuku emozio programa. Ikasmaterial horien sorkuntzarako EAEko Heziberri Curriculum dekretua eta Nafarroako Curriculum dekretua hartu dira kontuan. Ikastoletan ikasmaterial horien erabilera orokortua izan da urte luzeetan, eta horrek ahalbideratu digu, formazio eskaintzaren bitartez, kompetentzietan oinarritutako ikas-irakaskuntza prozesuak gelaraino iristea. Hau da, irakasleen ahaldunderako gakoa izan dira formazioak eta ikasmaterialak. Labur bada ere, azpimarratu behar dugu azken urteetan euskal hezkuntzan egin den berrikuntzarik garrantzitsuena ez bada, garrantzitsuenetarikoa izan dela eta Ikastolen Elkartearen inoiz egin den sortze prozesurik handiena gauzatu dela.

¹³ Guztiaren abiapuntua EKA mintegiak izan ziren. Bi helburu lortu nahi ziren: batetik, ikastoletan hezkuntza proiektu propioak idaztea eta, bestetik, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza ereduaren oinarriak lantzea eta ikuspegi berri hori ikastoletan zabaltzea.

¹⁴ Ibilbide luze honetan ikastolak bidelagun izan ditugu, etengabeko formazioan elkarrekin aritu gara, baina ez hori bakarrik, ikasmaterialen hobekuntza eta berrikuntza ere izan ditugu langai. Sorkuntza eta hobekuntza prozesu eraginkorrak gauzatzeko ikaslariek hezkuntza argitaletxea sortu genuen; ordura arte Elkar eta Ikastolen Elkar-teak genuen kontratu harremanean sakontzea erabaki zen 2010ean. Ikasmaterialen ekoizpen eta banaketa ikuspegitik urrats estrategikoa bilakatu zen: alde batetik, euskalgintzako bi erreferente biltzen zituen egitasmoa zelako, eta, bestetik, Euskal Curriculumaren garapenerako funtsezkoa izan zelako, lan egutegi argia eta oinarritzko baliabideak esleituta zituena.

¹⁵ Horrez gain, **2014-2018 ikastolen geroaz** izeneko dokumentuan, Curriculumaren garapenerako atalean bildutako ideiei erreparatuz, aipatu behar dugu HTI (Hizkuntzen Tratatua Integrala) eta IDU (Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala) egitasmoek DBHko etapako garapenean izan dutela eraginik handiena. Proiektu eta lan talde bakoitzak bizi izan duten egoerak baldintzatu ditu egiteko horiek; hau da, Lehen Hezkuntzako taldean sorkuntza fasean jarraitzen genuen bitartean, lan ildo hauen garapenari heldu genion DBHko etapan. Horiek horrela, IDUren unitate pilotua egin zen eta formazioarekin osatu zen eskaintza hori, eta, aldi berean, DBH 1eko ikas-arlo batzuetan ere izan du bere garapena. Eta HTIri dagokionez, beronen gaineko ezagutza eskuratu eta diskurtsoa osatzen aritu gara.

¹⁶ Momentuan, DBHko ikasmaterial guztien hustuketa eta diagnostikoa eginda daukagu eta ikastoletan gaiaren gaineko klaustro mailako formazioak eskaintzen ari gara. Beste etapetara ikuspegi zabaltzeko asmotan, aktibatuta zeuden lan ildoekin uztartzen saiatu gara. Hala ere, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan hasiera fase batean kokatzen gara oraindik (LH4tik LH6rako EKI materialen hustuketa eginda dago, eta egileekin hustuketaren gaineko hausnarketa ere partekatuta dago).

¹⁷ Haur Hezkuntzarekin jarraituz, proiektu pedagogikoari dagokionez, ikastolak HIZAN markoaren baitan batzea lortu dugu eta horrekin, zegoen dispersioari erantzuna emateaz gain, ereduak batzea ere lortu da. 0-6 ikuspegitik ikastolekin batera sortutako markoa izan da HIZAN proiektua, eta erreferenteen sarearen bidez aipatu bata-suna ematea lortu da. Erreferenteen mintegiaren bitartez ahaldundera pedagogiko bat ere eman da ikastoletan. Baliabide didaktikoen eskaintza aldetik, KUKU emozio programa sortu eta eskaintzen dugu. Oraindik garapen bidean dagoen proiektua da.



¹⁸ Lehen Hezkuntzari dagokionean, bi faktore azpimarratu beharko genituzke. Batetik, ikastoletan gogoeta pedagogikoaren inguruan sortutako mugimendua eta, bestetik, Txanela egitasmoa ordezkatzeko beharra. Faktore horiei erantzunez ekoitzi dira EKI LH (4,5 eta 6. mailak) eta Kimu proiektuak (1., 2. eta 3. maila).

¹⁹ Bukatzeko, konpetentzietan oinarritutako ikas-irakaskuntzaren markoa Batxiler-gora eramateko, Batxilab mintegia abiatu da. Konpetentzietan oinarritutako Batxiler-goko markoa osatzea du helburu. Erronken diseinuan eta antolaketan aritu izan gara, eta ikasmateriala sortzen hasi gara: Euskara ikasgairako esaterako, bai eta prozedura metadiziplinarrak lantzeko erronkak ere (0 erronkak).

²⁰ Aisialdiari dagokionean, aisiari buruzko markoa idatzi dugu. Euskara ardatz izanik, ikastoletan ikaslea ulertzeko moduarekin koherentzian dagoen eremu ez formaleko eskaintza osatzeko oinarria izan da.

²¹ Lanbide desberdinetarako eskaintzen den formazioan euskararen presentzia areagotzeko, eta ondorioz, lan mundua euskalduntzeko urratsak egin dira. Konpromisoak hartu eta lurralde desberdinetan eskaintza zabaltzen joan da, oinarritzko lanbide heziketa, erdi mailako eta goi mailako zikoak eta espezializazio ikastaroak eskainiz. Egun, 9 ikastolatan eskaintzen da, %80eko lan munduratzea, 35 espezialitate eta 1.522 ikasle daude. Ikasketarako funtsezko lan-metodologia erronkak dira, hau da, eremuan aurki daitekeen egoera erreal konplexu bati irtenbidea ematea, eta praktika on guztiak (metodologikoak, kudeaketa mailakoak zein teknologikoak) partekatzeko Lanbide Heziketako zuzendarien mintegia sistematizatu da. Mintegi hau eta derrigorrezko hezkuntzako ikastoletako orientatzaileak elkarlanean aritzen dira "Zuen etorkizuna erabakitzeko, egiazue toki bat Lanbide Heziketari" adieraziz. Guztiarekin Ikastola eredu Lanbide Heziketa ere eraldatzen ari da.


²² Curriculum proiektu komunik ez da landu Iparraldeko ikastolekin, eta ikasmaterialgintza alorrean Seaskak ez du garapen propiorik egin. Hala ere, Ikas argitaletxearekin kolaborazio zuzenak egiten dituzte, ikastolek dituzten behar horiei erantzuteko. Aipatu nahi dugu, balorazioan zehar behin eta berriz aipatu dela elkarrekin gogoe-tatu beharko genukeela eta elkarrekin guztien beharrak asetzeko zer ekoitzi daitekeen zehaztu beharko genukeela.

²³ Ondorengo taula eta grafikoetan adierazi dugu Ikasmaterialgintzak EAE eta Nafarroako ikastoletan duen hedapena jasotzen duen taula bai eta ikastola ez diren beste ikastetxeetan duen erabilera ere. Horrez gain, EAEko argitaletxe ezberdinen eskaintzak sektorean izan duen bilakaera ere azaltzen da osteko grafikoetan:


	KUKU		KIMU		EKI LH		EKI DBH	
	22/23	23/24	22/23	23/24	22/23	23/24	22/23	23/24
Ikastolak	36	40	50	48	59	64	Ez dago datu fidagarririk	
Ikastola ez diren ikastetxeak	Ez dago datu fidagarririk		37	53	90	94	79	84




HH, ikasmaterialen bilakaera EAEn



LH, ikasmaterialen bilakaera EAEn



BH, ikasmaterialen bilakaera EAEn



Curriculum proiektuaren garapena (hedapena/zabalkundea: 1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparraldea
4	4	1



1.2. Hizkuntza proiektua

- ²⁴ 2009an argitaratu zen **Ikastolen Hizkuntza Proiektua** izeneko liburua. Dokumentu horren gauzapenerako HIZPRO mintegiak jarri ziren martxan Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako ikastolekin. Hainbat urtez lan ildo estrategiko izan zen hura indarra galtzen joan zen, baina azken urteetan, ditugun datuetan oinarritutako diagnostikoa dela eta, berriro ere erdigunera ekartzeko saiakerak egin dira. Saiakera horren emaitzak argi ikusten dira gauzatu diren hainbat egitasmotan: HIZPRO mintegiak birdiseinatu eta indartu egin dira, Eragiten proiektua (elkarrekintza didaktikoan oinarritua) gauzatu da, Aisialdi markoan hizkuntza erabileraren gaineko gogoeta eta estrategiak txertatu dira, HTIren gaineko ikuspegia garatu da (ikasmaterialgintza + formazioa) eta abar.
- ²⁵ Ikasle zein profesionalen hizkuntz gaikuntzarako gakoa izan da Leizaur euskaltegia. Ikasleen C1 zertifikaziorako egiten den eskaintza eta lanketa lan lerro esanguratsua da. Ikastolekin elkarlanean, ordu lektiboetan zein eskola orduz kanpo antolatzen eta dinamizatzen diren Euskara lanketarako saioak aurrera eramaten dira. Bestetik, irakasleen C2 zertifikazioaren gaineko ildoak dugu, hizkuntza gaikuntzaz gain, hizkuntzaren didaktika bera ere barnebiltzen duena. Eskaintza hau, gainera, aurrez aipatutako HTI lan ildoaren abiapuntua izan da.
- ²⁶ Iparraldeko ikastoletan ere indar handia jartzen ari dira Euskararen erabileraren gaineko kontzientzia garatu, familien proaktibotasuna sustatu, euskararen erabilera sustatu eta kalitatea hobetzeko. Bide horretan, ikastola bakoitzak bere hizkuntza xarta osatu du, Euskaraz Bizi taldeak osatu dira eta aholkularitza prozesu bat ere abiatu da. Kolegioetan eta Lizeoan euskara erreferenteak izendatu dira eta beraiei begirako presakuntza eskaintza ere bideratu da.
- ²⁷ Hizkuntza egitasmoen bueltan lan ildo bateratuak irudikatzeko saiakerak ere egin dira Ikastolen Elkartea, NIE eta Seaskako arduradun eta lankideen artean. Ikusi da, batetik, bakoitzak egindakoa bestearantzako zein baliagarria izan daitekeen eta, bestetik, gogoeta partekatuetatik abiatu eta proiektu bateratuak sortzeko aukerak ere badirela. Hala ere, honi guztiari forma emateko beharra badagoela azpimarratu behar dugu.
- ²⁸ Hizkuntza proiektuen baitan aurreikusitako planak diseinatu eta inplementatu ditugun arren, horiekin gure komunitatean eta, ondorioz, gizartean izan nahi genuen eragina ez da nahi genukeena izan. Hau da, hizkuntza proiektuak diseinatu eta gauzatu badira ere, Euskararen erabileran eta kalitatean izan dugun bilakaerak asko kezkatzen gaitu.

Hizkuntz proiektuaren garapena (hedapena/zabalkundea: 1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparraldea
3	3	3



1.3. Digitalizazio plana (IKT)

- ²⁹ Digitalizazioa ere ikastolen eta Ikastolen Elkartearen ikurra izan da Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroan. Iparraldeko ikastolek eta Seaskak ez dute hautu zehatzik egin gaiaren inguruan, ez dute norabide finkorik trenkatu. Egun zabalik dute gaiaren gaineko eztabaida prozesu bat Seaskako Hezkuntza taldean.
- ³⁰ Digitalizazio egitasmoaren funtzio nagusia, ikastolen digitalizazio plana diseinatzea, garatzea eta ikastola orotara hedatzea da, Informazio eta Komunikazio teknologiak bere eguneroko zereginetan txerta ditzaten, **ikas-irakaskuntza prozesuan zein kudeaketa, antolaketa eta komunikazioan**.
- ³¹ Bestalde, ikasle kompetente digitalak heztea du helburu egitasmoak, eta horretarako, beharrezko prozesuak eta baliabideak martxan jartzea. Teknologia modu instrumentalean menderatzea baino gehiago izan behar du kompetentzia horrek; bizi osoan zehar etengabe ikasten jardutea eta informazioaren gizartean hiritar digital aktiboa eta kritikoa izatea ahalbideratu behar du.
- ³² Kompetentzia digital horren eremuak eta dimentsioak definitzeko eta ikasleen irteera profila finkatzeko, Europako hiritarren DIGCOMP (Digital Competence) markoa hartu dugu oinarri.
- ³³ Kompetentzia digitalari izaera metadiziplinarra eman diogu eta arloetako jardueratan integratu dugu, bereziki LHko 4. mailatik aurrera. Horretaz gain, pentsaera konputazionalaren lanketarako proposamen bereiztua ere eskaintzen da.
- ³⁴ Ikastolen Elkartearen aldetik, Ikasmaterialgintzan duela urte asko egin zen digitalizazioaren aldeko hautua, horrek ekar zitzakeen onura pedagogikoak ikertuz eta inplementatuz, eta horretarako garatu dugun **Saioka** plataforma gakoa izan da. Gure ikasmaterial digitalak erreferente izan dira eta dira gaur egun; teknopedagogian egindako garapenak, ikasmaterialen egokitzapenak egiteko askatasuna, ikasle zein irakasleen gaikuntzarako sortutako tutorialak, IDU garapenak, materialen itzulpen automatikoa eta abar dira erreferentzialtasun hori eman diguten ezaugarriak.
- ³⁵ Ikasmaterialei dagokienean, egindako ibilbidea ez da digitalizazio begiradatik egindako kudeaketa bakarra. Horiez gain, batetik, komunikazio ikuspegitik, ikastolen webguneen garapenean ere aspalditik dabil Ikastolen Elkarteko lantaldea ikastolei zerbitzua eskaintzen eta, bestetik, ikastolaren kudeaketa orokorrerako Alexia plataformaren aldeko hautua egin zen bere momentuan eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastoletan oso hedatua dagoen aplikazioa da. Nafar Gobernuak aplikazio propio bat erabiltzen du eta horrek orain arte muga jarri digun arren, aurrera begira hemen ere eragiteko aurreikuspena dugu.
- ³⁶ Esan bezala, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroan ibilbide luzea egin dugu. Baina ez da nahikoa maila horretan lan egitea eta baliabideak eskaintzea; beharrezkoa da azpiegitura eredu jasangarria definitzea ere, digitalizazioak ikastolari, eremu guztietan (azpiegituraren erosketa-berrikuntzan, mantenuan, profesionalen prestakuntzan, dinamizazioan...) zer ondorio ekartzen dizkion zehaztuz. Hori horrela, aurrera begira hedagarria izan daitekeen eredu finkatzen ahalegindu gara. Badira urte asko, horretarako IKT arduradun mintegiak aktibatu zirela; ikastolen premiak identifikatu, lanketa partekatuak egin eta aukera eta irtenbide bateratuak bilatzeko mintegiak dira. Ezinbesteko lana izan da digitalizazio prozesuan urrats sendo eta etengabeak egin ahal izateko.
- ³⁷ Azken urtetan **IkaDIG** egitasmoaren garapenean murgilduta aritu gara Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako ikastolekin. Ikastola bakoitzak bere digitalizazio plana idazteko helburua izan du egitasmoak. Ikastolekin adostutako helburu horrekin



batera, diagnostiko bat egiteko beharra ere ikusi zen Ikastolen Elkartearen. Bide horretan ari ginela, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroa Gobernuako Hezkuntza agintariek ikastetxeen digitalizazio plana idazteko agindua eman zuten, gure bidearekin bat eginez, baina eredu eta txantilo propioak baliatuz. Prozesuan bat egin behar izan dugu, eta, aurrez eginda genuen ibilbideari esker, ez da zaila gertatu. Ikastolen Elkartetik koordinatzen diren mentore talde batek dihardu lan honen gaineko aholkularitza eskaintzen ikastoletan.

³⁸ Seaskan, azken ikasturtean lanketa ezberdinak aktibatu dira: batetik, formazio eskaintza gauzatu da (*moodle, drive* eta kalkulu orrien gaineko prestakuntza) eta horrez gain, ebaluazio ereduaren batze saiakera baten baitan, Alexia aplikazioaren erabilerrako pilotaje bat ere abian jarri da. Hiru ikastolak hartuko dute parte honetan, eta aurrera begira besteetara zabaltzea aurreikusten da pilotajea ondo baloratzen bada.

³⁹ Atal hau ixteko aipatu beharra daukagu azken urteetan bai gizartearen bai ikastoletan bi eremutan piztu den kezka: batetik, teknologiaren erabilera arduratsua, eta, bestetik, Google produktuen erabilerrak datuen babes eta erabilerraren inguruan sortu duen egonezina. Erabilera arduratsuan hezkuntza komunitateko kide ezberdinen ahalduentzerako lan egin behar dugula adierazi da, eta datuen babes eta jabetza izateko alternatibak arakatu eta erabaki bat hartu beharraz jardun dugu Artezkaritza bileretan.

Digitalizazio planaren garapena (hedapena/zabalkundea: 1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparaldea
4	4	1

1.4. Aholkularitza / prestakuntza

⁴⁰ Atal honetan ere egindako ibilbidea eta izandako garapena azpimarratzekoa dela esanez abiatu nahi dugu gogoeta. Momentu ezberdinetako premiak aintzat hartuz estrategia eta helburu desberdinak izan ditugu, horiek azaltzen eta baloratzen joango gara atal honetan zehar.

⁴¹ Batetik, antolaketa, administrazio eta egitura mailako prozesuak izan ditugu abian; ZUMIN eta ADMIN mintegien bitartez, maila orokorreko koordinazioa eta komunikazioa lantzen dugu. Hezkuntza Sailarekin izandako harremanen ingurukoak ere bertan lantzen ditugu bai eta Ikastolen Lan Hitzarmenen ingurukoak. Foro horiei eutsi behar zaiela ikusi da; batzuetan jite parte-hartzaileago bat emateko beharra ere ikusi dugu. Hala ere, ez da erraza honelako foro batean elkarrizketa eta lanketa sakonak egitea; momentuz ez dugu helburua betetzat eman.

⁴² Horrez gain, VI. Batzarraren ostean, Euskal Curriculumaren ezarpena geletaraino eramateko erronka planteatu genuen. Hori gauzatu zedin, bi bide jorratzen hasi ginen: formazioarena eta ikasmaterialena. Material sorkuntza aktibatu zen, baina, paraleloki, EKA mintegiak ere eskaini genituen ikastoletako zuzendari eta arduradun pedagogikoentzat. Konpetentzien diskurtsoa landu eta didaktikan eta irakasle rolean izango zituen aldaketak azaltzen aritu ginen. Arduradun horiek ziren mezu hori ikastoletan zabaltzeko egitekoa zutenak; beraiek jasotako hori klaustroetan lantzeko konpromisoa hartu zuten. Ondoren, ikasmaterialen argitarapenarekin batera, irakasleen formazio mintegiak aktibatu ziren; arloka egiten genituen eta ikasmaterialen erabilera arrakastatsu bat egitea zuten helburu. Horiei esker, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza eredu gelaratzeko urrats esanguratsuak egin genituen eta, aldi berean, beste behar batzuk ere azaleratu ziren.



- 43 Behar horiei erantzun nahian, beste era bateko mintegiak diseinatu genituen; ikuspegi orokorrago batetik, gure ereduaren oinarri pedagogiko eta metodologikoak azaltzeko mintegiak aktibatu genituen: ebaluazio mintegiak (EKI LH eta DBH, erreferenteen mintegiak (HIZAN eta HEGIN), HIZPRO, IDU, ... Askotarikoak izan dira horren inguruan egin diren saiakerak: ikastola ezberdinetako erreferenteak elkartuz, ikastola bakoitzean hezitzaile taldearekin (klastroarekin) saioak bideratuz... Hauen guztien bitartez, berrikuntza pedagogikoan urratsak egitea nahi zen, eta, hein batean, helburuak lortu dira.
- 44 Aisialdi ereduari dagokionean ere, EKE mintegiak abiatu dira. Eskolaz kanpoko ekintzen arduradunak batzen dira bertan, eta aisiaren markoan jasotzen direnak lantzeko baliatzen ditugu, hau da, eremu ez formalean eragiteko eta ikastoletako ikuspegiarekin Zirimola Aisialdi Taldearena aberasteko helburua dute.
- 45 Berrikuntza pedagogikoan urrats sendoagoak egin nahian, ESCALAE institutuarekin elkarlanean Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorra (HPI) egitasmoa diseinatu eta ikastolaratu zen. 23 ikastola izan dira honetan parte hartzen aritu direnak eta emaitza ezberdinak eman ditu. Egitasmoarekiko ikastola bakoitzaren atxikimenduak, dedikazioak, ulermen mailak eta zuzendaritza taldearen zein aholkularitza lidergoak baldintzatu izan du ikastola bakoitzak egindakoa. Gauza baliagarri asko ikasi eta praktikara eraman ditugu eta ikastoletan izandako eragina ere positiboki baloratu behar dugu. Hala ere, ikastolek (orokorrean) beste nolabaiteko emaitzak espero zituzten eta lan taldean egindako gogoeta baten ostean, aholkularitza prozesu berri bat diseinatzeko beharra jarri da mahai gainean.
- 46 Hezkuntza Marko Orokor berriaren gauzatzeak premia berriak sortuko ditu eta VII. Batzarrean definituko ditugu bide berri hori urratzen joateko hurrengo pausoak zein diren.
- 47 Kudeaketan aurrerapausoak emateko ikastoletan kalitate ereduak bultzatzeko mintegiak jarri ziren martxan. Bai KEI bai EFQM kalitate ereduaren irizpideak aztertuz, hainbat prozesu sistematizatzeko bidea egin da, beti ere hezkuntzaren kalitatea neurtuz, hobetzen jarraitzeko. Arreta berezia jarri izan da arrakastarako adierazleetan eta honek GEZKI Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutuarekin lankidetzat hitzarmen bat sinatzera eraman gaitu **“Kudeaketarako adierazle sistemak Gizarte Ekonomiako eta Ekonomia Solidarioko Erakundeetan: ikastolen kooperatiba esperientziaren kasua”** izeneko ikerketa gauzatzeko.
- 48 Berrikuntza eta eraldaketa pedagogikorako eskaintza zabala dago merkatuan ere. Reimagine Education lab, Tu Innovas, Escuelas Trilema... Badira aholkularitza horiek baliatuz eraldaketa ezberdinak aurrera eramaten ari diren ikastolak eta horrek aniztasuna ekarri du ikastola mugimendura. Ikastolen Elkartetik, ikastoletan eman diren aurrerapauso horiek guztiak baloreen jarri nahi ditugu, azken finean, ikastoletan gertatzen den hori laborategi garrantzitsua da guztiontzat, gertutik jarraitu eta ondorioak atera behar ditugu eta ikastolentzat baliagarriak diren hautuak egin behar ditugu. Bi norabideetan elkar elikatzeko aukera dagoela azpimarratu nahi dugu, eta horretan sakontzeko bideak eraiki behar ditugula ikusten dugu.
- 49 Prestakuntza eredu berriak esperimentatzen eta inplementatzen joateko aukera ere baliatu dugu. Pandemia garaian **on line** formatuan egin ditugun formazioak asko izan dira eta eredu berri horrek eskaintzen dizkigun aukerak ere balioan jarri ditugu. Ondorioz, autoikaskuntzaren bidetik saiakera berriak egin ditugu: EKI autoikaskuntza ikastaroa edota KUKU emozio programan oinarritutakoa. Eredu hibrido batean oinarritu ditugu, batzuetan saio presentzialekin uztartuz eta, bai ala bai, autoikaskuntza ikastaroaren tutorizazio prozesu batekin osatuz. Honetarako ezinbestekoa izan da pandemia garaian bizi izandakoa eta horren ondorioz batutako esperientzia guztia. Behar edota premia horiek ezinbestean gauza berriak esperimentatzera behartu gintuen, eta horietatik guztietatik ikasitakoekin prestakuntza ereduaren gaineko gogoeta orokor bat egiteko premia azaleratu da.



- 50 Nafarroako ikastolen errealitate eta behar propioei erantzuteko, lehen aipatu diren horiez gain, NIEk egiten duen eskaintza propioa ere badute. Horietako batzuk goian aipatutako lan ildoen parekoak dira (ZUBI eta OMIN esaterako) beste batzuk aldiz, helburu propioei erantzuten diete. Oro har, eskaintzaren balorazio oso positiboa egiten da Hego Euskal Herriko ikastolen aldetik.
- 51 Iparraldeko ikastolentzat aldiz, Ikastolen Elkartetik egindako eskaintza ez da bere horretan gauzatu. Lehentasun, antolaketa eta baliabide mota eta kopuru ezberdinak medio, prestakuntza plan propioa egin eta eskaintzen du Seaskak. Seaskaren Hezkuntza Proiektua da ikastola bakoitzaren Hezkuntza Proiektuaren orubea eta horretan oinarrituta lan egiten dute aholkularitzan eta prestakuntzan. Gai honekin lotuta, ikastolentan hezkuntza taldeak sortzen ari dira eta Curriculumaren gaineko lanketa egiteko helburua ere zehaztu dute. Azpimarratu nahi dugu Bizi Jolas taldeak Seaskako hezkuntza taldearekin batera egindako elkarlana bera eta elkarlanaren emaitza. Kanpo espazioak eskaintzen dituen aukeren gaineko gogoeta egin dute; gun e eta une bakoitzaren ezaugarri eta zertarakoaren baitan, espazio hezitzaile eta euskararen erabilerrako arnagune bihurtzeko lanetan aritu dira. Helburu bikoitza duen egitasmo honen zabalkundea beste lurraldeetara egitea interesgarria dela ikusten da, eta Hegoaldeko ikastolaren batean urratsak egiten hasita daude.
- 52 Horrez gain, irakasleen hasierako formazioan ibilbide luze eta emankorra dauka Seaskak; Frantziako Hezkuntza Ministerioak irakasleen kontratazioan eta finantzazioan duen eskumena ere aipatzekoa den arren, are aipagarriagoa da Seaskak irakasleen hasierako formaziorako diseinatu duen mintegia. Ikastoletara lanera sartzen diren pertsonak argi izan beharreko oinarri batzuk aurrez finkatzea beharrezkoa da, bereziki, azken urteetan ikusten ari garen identitate eta balore krisia dela eta. Seaskan ezezik, ikastola guztietara hedatu beharreko sarbide mintegia diseinatu behar dela aipatu da foro ezberdinetan, aurrera begirakoetan txertatu beharreko gaia.
- 53 Azken urteetan, Seaskan, etengabeko prestakuntzan arreta jartzeko saiakera egiten ari dira eta ikastoletan dauden praktika arrakastatsuek partekatze bideak ere ezartzen ari dira. Ikastolen Elkartek ibilbide luzea eta eskarmentu zabala du honetan, eta hasierako prestakuntzan eta bizitza osorako prestakuntzan batak zein besteak duen ezagutza partekatze bideak aukera paregabea dugu.
- 54 Prestakuntza eta aholkularitza bide luze hau bideragarri izateko, beharrezko finantzazio iturriak aztertu eta kudeatu dira, bai ikastolen beharrei erantzuna emateko, baita Ikastolen Elkartek behar izan dituen erantzuteko ere.

Aholkularitza/ prestakuntza planaren garapena
(hedapena/zabalkundea: 1 gutxi/ 4 asko)


Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparraldea
4	4	4





**NONDIK
GATUZ**
IKASTOLEN
BATZARRA

2. Ikastolen zerbitzu kolektiboen antolakuntzaren eta kudeaketaren bilakaeran eta antolakuntzan arduradun izatea.



2. Ikastolen zerbitzu kolektiboen antolakuntzaren eta kudeaketaren bilakaeran eta antolakuntzan arduradun izatea.

2.1. Ikastolak sendotu eta berriak sortu

⁵⁵ Helburu honen barruan bi lan lerro bereizten ditugu. Batek ikastolen sendotzeari egiten dio erreferentzia eta bigarrenak ikastola berriak sortzeari. Sendotzeari dagokionez urrats garrantzitsuak egin dira, eta ikastolak gaur orain urte batzuk baino egonkorragoak dira proiektu pedagogikoari dagokionez, baita bideragarritasun ekonomikoari dagokionez ere.

⁵⁶ Hainbat ikastolatan lerro berriak irekitzeko lana egin da, momentu askotan tentsio handia eragin duena. Emaitza ona izan dute azkenean, eta hainbat ikastolatan lerroak gehitzea ekarri du.

⁵⁷ Kontzertu moduluetan ere hobekuntzak lortu dira, eta ikastoletan baliabide gehigarriak ekarri dituzte; ordezkapen ratioa handitu da %2tik %6ra, orientatzaile figura %100ean finantzatu da, kontzertua lortzeko ikasle ratioa jaitsi da, funtzionamendu, ez irakasle eta RIR kontzeptuetan %25eko gehikuntza egon da eta bi urteko gela kontzertu moduluen bidez finantzatuko da 2023-24 ikasturtetik aurrera. Administrazioaren titulartasuna duten ikastetxeekiko parekatzea lortzeko oraindik ere lanean jarraitu behar bada ere, atzera begiratzen badugu, ez da gutxi lortutakoa.

⁵⁸ Ikastola berrien sorkuntzari dagokionez, kudeaketa lan handia egin den arren, emaitza ez da hain oparoa izan, eta ikastola berri bat sortu da Hegoaldean. Iparraldean, ordea, ikastola berrien sorkuntza handia izan da. Esan bezala, ikastola berriak Seaskaren baitan ireki dira nagusiki, 13 hain zuzen. Gainerako lurraldeetan, Gipuzkoan sortu da ikastola berri bat: Aratz ikastola hain zuzen ere. Nafarroan ez da ikastola berririk sortu. Noainen egin zen ahalegin bat, baina ez zuen arrakastarik izan.

⁵⁹ Gaur egun 114 ikastola daude Euskal Herrian: Araban 8, Bizkaian 22, Gipuzkoan 30, Nafarroan 15 eta Seaskan 39. 55.999 ikaslek ikasten dute ikastolen sarean.

Aurrera begira Seaskan badago ikastola gehiago irekitzeko asmoa. Helburua da 3.000 biztanle baino gehiagoko herri guztietan ikastola bat egotea. Era berean, proiektu berriak ere jarri nahi dira: Haur eskolak ireki eta Baxoaren ondorengo eskaintza egin.

⁶⁰ Nafarroan saiakerak egin dira eremu ez euskalduneko ikastolek finantzazio egonkorra izan dezaten. Taldekatze irizpideetan eskola publikoak dituen baldintza berdina izatea lortu da.

⁶¹ Finantzazioa hobetzeari dagokionez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastoletan urrats batzuk egin dira. Besteak beste, honako atal hauetan lortu dira hobekuntzak: Kontzertazio modulu gehikuntzak egon dira; inbertsioak diruz laguntzeko Hezkoop deialdia hiru-lau urteko maiztasunarekin argitaratu da; ikastoletako digitalizazio plana garatu eta irakasleen kompetentzia digitala hobetzeko prestakuntza bideratzeko diru-laguntza jaso da.

2 urteko gela kontzertazio bidez finantzatuko da 2023-24tik aurrera eta 0 eta 1 urteko moduluak hobetu dira.

⁶² Langileen lan baldintzak hobetzera begira, hasieran eta lanpostuak mantentzeko helburuarekin ondoren, ikasturtero errelebo kontratuak egin ahal izateko diru-laguntzak bideratu dira.



2.2. Elkartasun Kutxa:

⁶³ Urrats handi bat egin da Elkartasun Kutxaren egituratze juridikoan. Europar kooperatiba gisa eratu da, eta Euskal Herriko ikastola guztiak bazkidetu dira bertan. Urtero 830.000 € banatu dira, nagusiki, Seaskako ikastolen hazkundera laguntzeko eta Nafarroako eremu ez euskalduneko ikastolen bideragarritasuna lortzeko. Azken hauek Errigoraren diru-laguntza ere jaso dute azken urteetan (guztira 40.000 € urtean).

⁶⁴ Aurrera begira Elkartasun kutxaren laguntza jaso duten ikastolen bideragarritasunaren jarraipena egiteko tresnak sortzea beharrezkoa ikusten da. Elkartasun kutxako ekarpenak banatzeko irizpideetan sakontzea izango da beste lan ildo bat.

⁶⁵ Hona hemen azken urteetan Elkartasun Kutxak lagundu dituen ikastolen inguruko zenbait datu adierazgarri:

Elkartasun kutxa 2014-2023

Banatu den dirua

Kapital ekarpena	7.019.669	
EAE	2.490.628	35%
Nafarroa	1.903.500	27%
Seaska	2.625.541	37%

Mailegua	856.107	
EAE	796.107	93%
Nafarroa	60.000	7%
Seaska	0	

Lagundu den ikastola kopurua

€/ikastolako

EAE	7	355.804
Nafarroa	3	634.500
Seaska	16	164.096

Autonomiaz funtzionatzea lortu duten ikastolak

EAE	5	
Nafarroa	0	
Seaska	13	

Ikastolak sendotu eta berriak sortu (1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparraldea
3	1	4



2.3. “Euskal eskola” kontzeptua bultzatzea

⁶⁶ Ideia honen lanketa esanguratsua *Oinarrizko Hezkuntza Akordioan* jaso zen, 2006ko urriaren 21ean onartu zena. Euskal Herriko hainbat hezkuntza eragilerekin onartu zen akordio honek Euskal Herriko Hezkuntza publikoaren aldeko hautua egiten zuen, publiko-herritar gisara ulertuz publikotasun kontzeptua.

⁶⁷ Euskal eskolaren ideia zabaltzeko “Zerbitzu Publikoa” erabili da azken urteetan, bereziki **Bihar** izenarekin Euskal Herriko ikastolekin landu den prozesuan.

⁶⁸ Zerbitzu publiko terminoaz zer ulertzen dugun eztabaidatzeko hainbat lanketa egin dira ikastola guztiekin. Bihar prozesuan Euskal Hezkuntza zerbitzuak izan beharreko 11 ezaugarri zehaztu eta definitu dira (endekalogo), eta ikastola bakoitzak ezaugarri horietako bakoitzarekin bere buruaren inguruko argazki bat egin du, indarguneak eta hobetzekoak identifikatuz. Ezaugarri horietako bat izan da “publiko-herritar ereditutik sortua” eta era honetan definitu da: *Euskal gizartearen izaera parte hartzaile eta kolektiboan oinarritua, publikotasun eredu berria eraikiko duena, titulartasunari baino, publiko-herritar harremanari kasu egingo diona. Irabazi asmorik gabeko herri proiektuak, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten dutenak, sistema publikoaren partetzat hartuko dituena.*

⁶⁹ Zerbitzu publiko terminoaren lanketari begira, bestelako hainbat ekimen ere egin dira: komunikabideetan iritzi artikulatuak argitaratu dira, ZUMINetan gaiari buruzko talde-lanak proposatu dira, topaketak antolatu dira beste herrialde batzuetan gaiaren zein ulkerera egiten den ezagutzeko...

⁷⁰ Gasteizko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2022ko martxoaren 24an adostutako etorkizuneko EAEko hezkuntza-sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak izan dira beste mugarri garrantzitsu bat. Adostasun sozial berri bat eraikitzeke oinarria ikusi genuen ikastolok hitzarmenean, hezkuntza eredu berri baterantz urratsa egiteko aukera gisa. Begi onez jo genituen akordioaren zenbait puntu, hala nola Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren sorrera edota segregazioa ekiditeko proposamenak zehaztea, eta kezka ordea, euskal curriculumari erreferentzialtasunik eza zein hizkuntzen tratamenduaren gaineko zehaztapen falta, besteak beste. Hitzarmenaren oinarriak Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako hezkuntza lege batean garatzeko bidean daude orain. Lege berriak indargabetu egingo du 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legea, zeinak ez zuen ikastolontzako aitorpen espliziturik egiten, lege proiektu berriak egingo ez digun bezala. Hala ere, argitu beharra dago, 1993ko legea eskola publikoaren legea izan zela eta ikastolak zein itunpeko beste guztiak lege arau horretatik kanpo geratu zirela. Orain, aldiz, ikastolak eta itunpeko gainerako ikastetxeak ere Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren parte izatera igaroko ginateke, aipatu bezala, sare propio bezala aitorpenik egiten ez zaigun arren.

⁷¹ Hitzarmeneko oinarriak hezkuntza lege berri batean garatzeko prozesuak, alegia, Eusko Legebiltzarrean testu artikulatu bat onartzeko prozesuak, ikastolon kezka eta ardura areagotu egin ditu. Azken testua ez da oraindik ezagutzen; hala ere, prozedura honen guztiaren baitan, Ikastolen Elkartek jarrera irekia eta eraikitzailea erakutsi ditu. Arduratik, lege-proiektuak jaso beharreko edukia zehazteko hainbat zuzenketa landu eta aurkeztu ditu publikoki lege-egitasmoan eragiteko. Ikusteke dago orain arte egingandako lanak eta ekarpenek izango duten isla behin betiko testuan.

“Euskal Eskola” kontzeptua bultzatzea: 1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparralde
3	2	2



2.4. Ikastolen mugimenduaren antolakuntza-egitura sendotzea

⁷² Ikastola mugimenduaren antolaketaarako Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartearen sortu da. Bertan Euskal Herriko ikastola guztiak dira bazkide. Ikastola bakoitzak taldearekin duen harremana zuzenagoa izan dadin lurralde egiturak mantendu dira. Parte-hartzeari dagokionez, orohar, datuak onak dira lurralde guztietan. Aipagarria da ikastoletako titularren ordezkarien parte-hartzea jaitsi egin dela eta leku hori zuzendaritzako kideek hartu dutela. Bileren parte-hartzaileagoak izan daitezkeen bileren formatuari buruzko hausnarketa bat egitea eskatzen digu. Ikastolen Elkarte modura norabide bakarra partekatze bidean urrats bat gehiago egin beharko luke taldeak, eta helburu hori lortzeko plan nazional bat adostea urrats garrantzitsua izango da.

⁷³ 2009ko uztartzea (ikastola federazioen/konfederazioaren artekoa) eta Ikastolen Elkartearen sorrera ondorengo irizpideetan oinarritu zen:

- Hezkuntza arloko proiektu, enpresa eta zerbitzu guztien bat-egitea eta zuzendaritza funtzional bakarra sortzea, Seaskak eta hainbat kasutan baita NIEk ere, hala beharrez, administrazio desberdinen aurrean bideratu beharreko kontuetarako izan ezik.
- Esparru administratibo bakoitzean (Ipar EH, Nafarroa eta EAE) egonkortasun-atala lurralde horretako ikastolen erabakimena izatea.
- Lurraldeko jaiak, Ikastolen arteko komunikazioa eta erakundeen aurreko ordezkaritza lurraldeko ikastolen eskuetan garatzea. Hala ere, AIF, BIE eta GIE "zaharrak" Ikastolen Elkartearen pean geratu ziren haien titulartasunean zenbait moldaketa eginik.
- Alderdi sozietarioa (Ikastolen Elkarte) Euskal Herriko Ikastola guztien eskumen zuzena izatea.
- Elkartasun Kutxa ekimen nazional bihurtzea, Ikastolen Elkartearen gidaritzapean. 2011n, Elkartasun Ikastolak izatera pasatu zen, 2. mailako Europar Kooperatiba. Ikastolen Elkarte eta Elkartasun Ikastolak kooperatiben Artezkaritza Batzorde bera izatea adostu zen.

⁷⁴ Arkitektura sozietario-organizatibo honen ardurapean, 2009-2014 Ikastolen Plan Integrala prestatu zen, eta plan horren ardatza derrigorrezko eskola adinerako kompetentzien bidezko Euskal Curriculum osatzea izan zen. Hau da, Derrigorrezko eskolaldirako diseinu kurrikularra egitea, diseinuari dagozkion ikasmaterialak prestatzea eta horiek guztiak gelaratzeko irakasleen prestakuntza antolatzea eta garatzea.

⁷⁵ Azken urte hauetan, Bihar prozesuaren baitan eztabaidagai izan da ikastola bakoitzaren antolaketa-eredua: herri/auzoko eragileekin harremana, tokiko administrazioen parte-hartzea ikastolan... Herritarren zerbitzura dagoen hezkuntza euskalduna izateko bidean, hausnarketak partekatu dira ikastolen arteko foro ezberdinetan.

⁷⁶ Aurrera begira, partaidetza sozietarioak zein leku eta garapen izango duen aztertzea lan ildo bat izango dela aurreikusten da.

Ikastolen mugimenduaren antolakuntza-egitura sendotzea: 1 gutxi/ 4 asko

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparaldea
3	3	3



2.5. Ikastolen osotasunezko egonkortasun planak (ekonomiko-finantzieroak, lanekoak, kreditu eta inbertsioetakoak) diseinatu, onetsi eta kudeatzea eta horietatik abiatuta beharrak dituen ikastola bakoitzarentzat egokitzea

⁷⁷ Egonkortasun planak egin dira, nagusiki bi kasutan: zailtasun ekonomikoak izan dituzten ikastolen kasuan eta mailegu bat sinatzeko abala eman zaien ikastolen kasuan. Horietatik abiatuta, beharra izan duten ikastolei zuzeneko aholkularitza eskaini zaie bideragarritasuna lortzeko neurri egokiak proposatuz.

⁷⁸ Partaideren abalarekin kudeatu diren maileguen egoera ondorengo taulan adierazi dugu:

	Maileguen hasierako saldoa	Saldo bizia 2022.12.31
EAE+Nafarroa	89.895.411	45.150.112
Seaska	-	-
Guztira	89.895.411	45.150.112

Guztira 58 ikastolek dute Partaideren abala. EAeko ikastola gehienek eta Nafarroako 3k

⁷⁹ Egonkortasun ikuspegitik egin den beste lan garrantzitsu bat tokian tokiko administrazioekin egindakoa izan da. Ikastolen kontzertazioaren inguruko negoziazioak zein irakasle postuen ingurukoak ikastolen taldeko egituretatik bideratu dira, eta lan hau garrantzi handikoa izan da.

⁸⁰ Lan arloa da azpimarratu behar den beste atal bat. Izan ere urte hauetan guztietan lan hitzarmenak adosteko gaitasuna izan da, eta legedi aldaketa sakonak eman direnean edo finantzaketa murriztu denean beti lortu dira akordioak langileen ordezkarezekin. Horren lekuko dira aldiro sinatu diren lan akordioak eta lan hitzarmenak; halaber, azpimarratzekoa da urte hauetan guztietan ez dela lan baldintzen inguruko greba deialdirik egin.

⁸¹ Lan arloan ere aholkularitza jarraitua eskaini da. Legeak ezarri dituen aldaketen inguruko informazioa eta prestakuntza eskainiz eta lan arloaren kudeaketa egokirako beharrezkoa den aholkularitza emanez.

⁸² Kontzertazio galeraren ondorioz zein bestelako arazo batzuek eraginda, lanik gabe gelditu diren eszedenteen kudeaketa egin da, eta egoera horretan suertatu diren langile guztiak birkokatu dira taldeko ikastolaren batean. Azpimarratzekoa da ikastola gehienek sistema honen inguruan erakutsi duten borondatea eta talde ikuspegi. Elkartasunaren adierazle esanguratsua da sistematizatuta dugun egiteko modu hau, aurrerantzean ere kontu handiz zaindu beharko dena. Azken 8 urteetako argazkia begiratzen badugu, Nafarroan 4 eszedente birkokatu dira eta EAEn 14

⁸³ Egonkortasuna eta lan arloko aholkularitza eskaintzea lurralde bakoitzaren esku-mena izan da. Nafarroan NIEk egin du lan hau, Iparraldeko ikastolentzat Seaskak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastolentzat Ikastolen Elkartek.

Ikastolen mugimenduaren antolakuntza-egitura sendotzea: 1 gutxi/ 4 asko

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparraldea
3	3	3



2.6. Ikastola inguruneari ireki eta iragazkorragoa egingo duten ereduak eskaini.

⁸⁴ Gizarte eragileekin batera euskararentzat guneak garatu eta bultzatzeko hainbat lankidetzak egitasmo garatu dira, besteak beste, honako eragile hauekin: Kontseilua, Bertsozale elkarteak, Errigora, AEK, Euskaltzaindia, UEU, EHU, HUHEZI, Eusko Ikaskuntza, Elkar, Wikilariak, Euskal Konfederazioa, Euskarabidea, Bizipoza, Oinherri... Lankidetzak hauen artean, izan duten ibilbideagatik, aipagarriak dira honako hauek:

⁸⁵ **Kontseilua:** Sorreratik Ikastolen Elkarteak bazkide izan den arren, hasierako urteetan Ikastolen Elkartearen parte-hartzea gorabeheratsua izan zen. Kontseiluaren zuzendaritzak markatutako ildoak eztabaida sortu zuten Ikastolen Elkartearen Artezkaritza Kontseiluan eta, ondorioz, 2002-2006 urteen artean, Ikastolen Elkarteak Kontseiluko zuzendaritzatik kanpo egon zen. 2006tik aurrera kide eta eragile aktiboa izan da, eta hainbat kanpainatan sustatzaile lan garrantzitsua egin du. Aipagarrienak ikastereduak gainditzea aldarri zuen "Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen" izeneko kanpaina eta 2016an onartu zen "Hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa" izan dira.

⁸⁶ **Gaindegia** elkartearen sorreran parte aktiboa izan zuen Ikastolen Elkarteak.

Euskal Herriaren dimentsio sozioekonomikoa ikertu, bildu, prozesatu eta ezagumendu hori gizartearen esku jartzea zen elkartearen helburua

⁸⁷ Gaindegiarekin lankidetzan lan interesgarriak egin dira ikasmaterialen arloan. Halaber, Ikastolen eta haien inguru sozialaren egoera, bilakaera eta prospekzioa eza-gutzeko azterlanak ere egin dira. Ikastolak zeuden herrietako demografiari buruzko lanak ere baliagarriak izan ziren jaiotze tasa aurreikusi eta horri begirako plangintzak egiteko.

⁸⁸ **PuntuEus elkarteak**

Interneten euskara eta euskal kultura ikusgarri bilakatzeko helburua duen elkartearen sorreran parte hartu zuen Ikastolen Elkarteak, beste eragile batzuekin elkarlanean.

⁸⁹ **Euskal Unibertsitatea** sortzeko saiakerak hainbat izan dira. Helburu horrekin fundazio bat eratu zen, honako kide hauekin: AEK, Berria, Elkar Fundazioa, Ikastolen Elkarteak, Ipar Hegoa Fundazioa, Kontseilua, Nazio Eztabaida Gunea eta UEU. Fundazioaren ahalegina izan zen Eusko Legebiltzarrak Euskal Unibertsitatearen sorrera ahalbidetuko zuen lege bat onartzea. Saiakerak ez zuen emaitzarik lortu.

⁹⁰ Euskararen erabilera indartzea ikastolen helburu estrategikoa da, eta hala izanik, hizkuntza proiektuaren ber-abiatzea bultzatu nahi izan da. Hizkuntza proiektuaren mintegitik ikastola euskara eta euskal kulturaren eragile aktibo izateko plangintza sistematizatuak bultzatu dira, ikastolako barruko komunitatean zein herri/auzoko eragileekin landu beharreko plan eta eskuhartzeak proposatuz.

Ikastola inguruneari ireki eta iragazkorragoa egingo duten ereduak eskaini (1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparaldea
3	3	3



2.7 . Ikastolen inguruko erakundeekin itunen eta harremanen markoa sustatu

⁹¹ Maila orokorrean Galiziako Semente eskoletako eragileekin egindako elkarlana garrantzitsua izan da. Seaska eta iparraldeko ikastolen mugimendua ere inspirazio iturri izan zen bere momentuan Eskolim sarearentzat (Diwan, Bressola, ABCM, Calandreta eta Scola Corsa eskolak, bretoiera, katalana, alsaziarra, okzitanoa eta kortsikerazko murgiltze ereduak eskaintzen dituzten eskolak biltzen ditu), berau abian jarri eta saretzea gauzatzeko.

⁹² Kasu guztietan, ikastolen esperientzia eredu garrantzitsua izan da, abiatu dituzten proiektuen oinarriak ezartzeko.

⁹³ Nafarroan **Txikiak handi** egitasmoak egonkortasuna lortu du, eta hizkuntza gutxitua duten nazio ezberdinekin harreman jarraitua lortu da urte askotan.

⁹⁴ Euskara eta hezkuntza euskaldunaren garapenari begira gizarteko erakunde ezberdinetan parte hartu da, era aktibo eta iraunkorrean. Kontseiluan, Euskal Konfederazioan, Bertsozale Elkartean. Aurrera begira, plan bat egin beharko litzateke partaidetza hau zabaldu eta eragin nahi ditugun emaitzen inguruko hausnarketa partekatu bat eginez.

Ikastolen inguruko erakundeekin itunen eta harremanen markoa sustatu (1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparaldea
3	2	3



2.8. Hezkuntza zerbitzu kolektibo guztiak egunera-tu ikastolek onetsitako Curriculumarekin koherentzia izanez eta ondorengo lehentasunetan oinarrituta

⁹⁵ Atal hauen balorazioa aipatu da txosteneko beste atal batzuetan.

2.9. Euskal Senaren zerbitzu kolektiboak neurritu elkarren artean erlazio sendoagoa lor dezaten, zehazki Xiba, Bertsolaritza eta Aisialdia egitasmoek

⁹⁶ Xiba egitasmoa bere horretan desagertu den arren, haren markoa eta kontzeptualizazio orokorra hainbat esparrutan txertatu da, hala nola, Gorputz hezkuntzako LHko ikasmaterialetan zein ikastoletako Aisialdiko Marko teorikoan. Eremu ez formaleko une eta guneak identifikatu dira eta hainbat egitasmo garatu dira, elkarbizitzan eta hizkuntza ohituretan eragiteko asmoz.

⁹⁷ Seaskako ikastoletan **Bizi jolas** proiektuarekin jarraitu da azken urteetan, Lehen Hezkuntzan ez baitago gorputz heziketako irakaslerik eta herriko etxeek ez baitute euskaldun animatzaileak proposatzen. Kanpo espazioaren lanketa proiektua eraman da Ortzaizen, orain garatzen ari dena.

⁹⁸ Bertsolaritza egitasmoaren inguruan, Bertsozale Elkartarekin hitzarmen bat sinatu da; ikastoletan egiten diren bertsolaritza saioak nagusiki Bertsozale Elkartek kudeatzen ditu. Saio gutxi batzuk Ikastolen Elkarteko egituratik bideratzen dira. Eskolartekoen txapelketaren antolakuntzan laguntza eskaintzen dugu eta Gipuzkoako idatziko txapelketa Ikastolen Elkartek kudeatzen du erabat.

⁹⁹ Aurrera begira ikusi beharko da bertsolaritza egitasmoak zein leku hartzen duen Ikastolen Elkartearen barruan.


¹⁰⁰ Aisialdi egitasmoari dagokionez, bide interesgarria egin da azken urteetan. Aisialdiko Marko Orokorra idatzi da, eta, oinarri horretatik abiatuz, egitasmo ezberdinak garatu dira. Bereziki indartu da hezitzaileei eskaintzen zaien formazioa, oinarritzkoa (Aisiola hezitzaile eskolaren bidez) eta programa bakoitzerako eskaintzen den espezifikoa. Egindako lanak izan duen emaitzaren adierazlea da ikastoletako eta egitasmo ezberdinetako izen-emateak nabarmen hazi direla azken urteetan.





**NONDIK
GATOZ**
IKASTOLEN
BATZARRA

3. Hezkuntzaren testuinguru sozioekonomikoa eta politikoa azken hamarkada honetan.



3. Hezkuntzaren testuinguru sozioekonomikoa eta politikoa azken hamarkada honetan.

3.1. Demografia aldaketak (jaiotze tasa, segregazioa...)

¹⁰¹ Jaiotze-tasaren jaitsierak nabarmen eragin du ikastoletako matrikulazioan, baina ikastolek hezkuntza-sisteman duten eragina, orohar, egonkor mantendu da. Hau da, ikastolen aldeko hautua egiten duten familia-portzentajea mantendu egin da.

¹⁰² Haur Hezkuntzako 1. zikloaren matrikulan, kontziliazioari begirako neurriek ere era agerikoan eragin dute. Gurasotasun baimenak luzatzeak matrikulazioan beherakada handia eragin du, bereziki 0 eta 1 urteko geletako; ondorioz, gela asko desagertu dira edo desagertzeko zorian dira.

¹⁰³ EAEEn, Segregazioari aurre egiteko, aldaketa esanguratsuak egin dira ikasleen onarpen aginduan 2023-24 ikasturteko matrikulazio prozesuan. Helburua da aniztasunaren banaketa orekatua egitea EAEko ikastetxe guztietan. Ikusteko dago prozedura berriak zein eragin izango duen ikastoletako matrikulan eta funtzionamendu orokorrean.

¹⁰⁴ Nafarroan 2021ean ezarri zen neurri hau baina ikastoletan ez du eragin handirik izan, D ereduan tipologia honetako ikasle gutxi matrikulatu direlako.

¹⁰⁵ Seaskako ikastoletan gorakada nabarmena egon da matrikulazioan eta 2022-23 ikasturtean 4.200 ikasle dituzte. Ikasleen profilean aldaketak egon dira, eta etxetik euskararik ez dakarten familien kopurua handitu egin da. Aniztasun hau kudeatzeak erronka berriak ekarri ditu hizkuntzaren perspektibatik.

¹⁰⁶ Hona hemen ikastoletako matrikulazio-bilakaera azken urteetan, ikastoletako ikasle guztiak kontuan hartuta:

	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19	2019-20	2020-21	2021-22	2022-23	Dif. 2014-2023
EAE	44.472	44.905	45.549	46.535	46.754	46.993	46.489	45.821	45.940	3,30%
Nafarroa	6.430	6.421	6.412	6.371	6.363	6.261	6.224	5.996	5.893	-8,35%
Seaska	3.222	3.388	3.492	3.686	3.861	3.987	4.021	4.064	4.166	29,30%
Guztira	54.124	54.714	55.453	56.592	56.978	57.241	56.734	55.881	55.999	3,46%

HH3 urteko matrikula bilakaera azken urteetan Euskal Herriko ikastoletan:

	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19	2019-20	2020-21	2021-22	2022-23	Dif. 2010-23
EAE	2867	3120	3190	3303	3079	3022	2897	2842	2899	2721	2479	2317	2225	-22,39%
Nafarroa	395	423	428	396	464	440	417	428	446	427	405	380	356	-9,87%
Seaska	151	249	274	251	295	324	280	352	324	362	300	357	311	105,96%
Guztira	3413	3792	3892	3950	3838	3786	3594	3622	3669	3510	3184	3054	2892	-15,27%

EAEko jaiotza tasaren bilakaera:

2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Dif. 2021-2013
19.118	19.378	18.851	18.240	17.076	16.090	15.418	14.739	14.257	-25,4%



Nafarroako jaiotze tasaren bilakaera:

2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Dif. 2021-2013
6.075	6.183	6.007	5.894	5.746	5.398	5.371	5.036	5.113	-15,84%

Seaskako jaiotze tasaren bilakaera:

2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Dif. 2021-2013
2.835	2.768	2.768	2.672	2.666	2.648	2.655	2.794	-1,45%

Demografia aldaketak (jaiotze tasa, segregazioa...) (1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparraldea
3	3	3

3.2. Administrazioekin harremanak (finantziazioa, aitortza, zerbitzu publikoa...)

¹⁰⁷ Seaskak urtero negoziatzen ditu irakasle postuak Hezkunde Ministerioarekin, urte horretan jaso dituen matrikularen arabera. Negoziazio eta borroka luzeen ondorioa izaten da azken emaitza. Zailtasun bat gehitu zaio prozesuari murgiltze ereduari legeak ezarri dizkion mugekin. **Azterketak euskaraz** leloarekin ireki dugun kanpainak ere indar handia izan du komunikabideetan.

¹⁰⁸ Sare publikoan dauden pedagogia arloko espezialista ezberdinak Seaskari ere aitortzea izan da urte askoan aldarrikapen bat, gaur egun ere badirauena.

Nafarroa: Urtero lan handia egiten da ikastolen kontzertazioak negoziatzeko.

¹⁰⁹ EAE: Hezkuntza legearen inguruko negoziazioek tentsio harremanak eragin dituzte. Planifikazio berriak ere eragin ditu tentsioak. Sare publikoak dituen baldintza beren aitortza da ikastolentzako eskatzen dena; betebeharrak eta eskubide berdinekin lan egiteko aukera.



3.3. Partaidetza sozietarioa/ Gobernantza eredua (Ikastoletan eta Elkarteetan)

¹¹⁰ Lan ildo konstante bat izan da partaidetza sozietarioa sustatzea. Norabide ezberdinetan egin den lanketa izan da: ikastolak, artezkaritza eta langileen artean.

¹¹¹ Ikastoletako partaidetza sustatzeko hainbat mintegi antolatu da, gai eta hartzaile ezberdinetzat. Helburua beti izan da Ikastolen Elkarteak hartzen dituen erabakiak ikastola komunitatearen oniritzi ahalik eta zabalenarekin hartzea. Azpimarratzekoa izan da maila nazionaleko bilerak antolatzeko egindako ahalegina. ZUMIN nazionaltan egikaritu da ahalegin hau bereziki eta, era xumean bada ere, lortu da maila nazionaltan antolatu diren zuzendari mintegi hauek Euskal Herriko ikastoletako zuzendari guztientzat erreferente bat izatea. Partekatzen diren lan ildoak asko ez izateak zaildu egin du mintegi hauen antolaketa, eta atal horretan identifikatu da aurrera begirako hobekuntza bat.

¹¹² Ikastoletan partaidetza sustatzeari begira Bihar Endakalogoan honela definitu da partaidetzaren atala:

¹¹³ ***Gobernantza demokratikotik antolatuta: Hezkuntza komunitateko kide diren guztien erantzukizun partekatutik bideratua. Ikasle, guraso nahiz langileen hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki komunetan nahiz erantzukizunen banaketan oinarritua.***

¹¹⁴ Ikastola guztiek beraien testuinguruan egin dute definizio honen irakurketa, indarguneak eta hobetzekoak identifikatuz. Hau da, endekalogo baliatuz, Ikastola ereduaren inguruko hausnarketa partekatua egin da Euskal Herriko ikastoletan. Hau guzti hau Bihar prozesuaren baitan egin den gogoeta izan da. Ikastolen Elkarteak, kanpo aholkularitza baliatuz, ikastolei gogoeta egiteko baliabideak eskaini dizkie (<https://www.biharprozesua.eus/>) eta ikastolek prozesuaren emaitzaren berri eman diote Ikastolen Elkarteari.

¹¹⁵ Partaidetzan, gizartean gertatzen diren zailtasun berdinak errepikatzen dira ikastoletan ere. Zailtasunak daude artezkaritza kontseiluetan aktiboki parte hartuko duten ordezkariak lortzeko. Herriaren zerbitzura dauden hezkuntza proiektuak dira ikastolak, eta hala ikusarazteko urratsak egiten jarraitzea inportantea iruditzen zaigu.

¹¹⁶ Ikastolen Elkarteko egituretako partaidetzari dagokionez, lurralde ezberdinen partaidetza datuak onak dira. Titularren ordezkarien parte-hartzea, ordea, gutxitu egin da, eta erabaki organo ezberdinetan zuzendaritzetako kideen parte-hartzea handitu da.

¹¹⁷ Partaidetza sozietarioa ulertzeko gako berriak ulertu eta proposatzea garrantzitsua izango da aurrera begirako ikastolen etapa berrian.

Partaidetza sozietarioa/gobernantza eredua (1 gutxi/ 4 asko)

Euskal Autonomia Erkid.	Nafarroa	Iparraldea
2	2	2





**NONDIK
GATUZ**
IKASTOLEN
BATZARRA



ikastolenelkartea